

## SALBATORE MITXELENA (1919-1965) ZENAREN OMENEZ

Haren idazlan guztiak argitaratzearekin batean 1977ko Azaroan Donostian zenbait ospaketa egin dira frantziskotar olerkari eta idazle hunen omenez.

Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialaren aretoan egin dira ospaketa hauk. Azaroaren 14ean mahai inguru bat, Salvatore-ren pertsona gai bezala hartuz. Mahai inguru huntu parte hartu zuten L. Villasante, J. Azurmendi, E. Agirretxe, Basarri, Bordari, D. Manuel Lekuona, Karmelo Iturria, N. Etxaniz, J. Elgarresta eta I. Unzurrunzagak. Azaroaren 16an beste mahai inguru bat, Mitxelena idazle bezala aztertzeko. Bertan hitz egin zuten J. A. Mujika, J. Azurmendi, J. A. Gandarias, B. Gandiaga, I. Sarasola, J. M. Lekuona, J. San Martin, Txillardegik, etab. Azaroaren 18an, berriz, *Idazlan Guztiak* edizio berriaren aurkezpena. Edizio hau bi tomotan da, baina egun hortan lehenbizikoa bakarrik aurkeztu zen.

Mitxelena Zarautzen jaio zen. Donostiako Frantziskotarrren komentuan hamar bat urtez (1945-1954) bizi ondoren, euskal kulturarentzat orduan zeuden traba eta eragozpenak ezin jasanez, Ameriketara jo zuen eta gero Suizara, eta han hil. Haren obra nagusiak: *Arantzazu, euskal sinismenaren poema* (1949), *Ama-Semeak Arantzazuko kondairan* (1951), *Unamuno ta Abendats* (1958), *Euskal Herriaren Guruzbidea*, etab.

Gerra ondoko egoera iluneko testigurik nabarmenena agian. Herri kutsuzko olerki bidearen aitzindaria. Euskaltzain laguntzailea zen.

## ALFABETATZE EUSKALDUNTZE BATZORDEA

1977-78ikasturteko ikasle-irakasle argitasunak

Euskaltzaindiko Euskalduntze Batzordearen erregela bereziak uztailako batzarrean onhartu ziren, hain zuzen, Euskaltzaindiak Iruñan egin zuena. Aurretik eta handik hona, hainbat lan egin dugu elkar eratze eta bateratze bidean. Oraindik ditugun hutsuneak kontutan edukiz ere, esan beharra dago aurrera pausu ederrak eman ditugula. Hala ere, guztiori beste batetarako utziko dugu. Gaur eskeiniko dizkizuegu soilik.

Hemen dituzue. Baina ongi ulertzeko aurretik bi ohar bederen:

1. Datuok herrialdez bildu ditugu eta kasu honetan, biltze lanean ez dira beti erizpe berdinak erabili.
2. Hemen argitaratzen diren datuak Alfabetatze Euskalduntze Batzordearen ardura pean dauden datuak dituzu. Eta kriterio nagusi bezela, irakaskuntza maila guztietan euskalduntzen eta alfabetatzen daudenak ez ditugu kontutan hartzen.

### GIPUZKOA

#### BIDASOA

Alfab. ....	108
Eusk. ....	486
denetara .....	594
Irakasleak .....	55

#### HERNANIALDEA

Alfab. ....	54
Eusk. ....	295
denetara .....	349
Irakasleak .....	35

#### DONOSTIALDEA

Alfab. ....	125
Eusk. ....	2.175
denetara .....	2.300
Irakasleak .....	148

#### TOLOSALDEA

Alfab. ....	152
Eesk. ....	688
denetara .....	840
Irakasleak .....	62

## GOIHERRI

Alfab. ....	119
Eusk.....	702
denetara .....	821
Irakasleak .....	46

## UROLA GARAIA

Alfab. ....	70
Eusk.....	571
denetara .....	641
Irakasleak .....	30

## LENITZ

Alfab. ....	224
Eusk.....	1.272
denetara .....	1.497
Irakasleak .....	200

## EIBARRALDEA

Alfab. ....	108
Eusk.....	451
denetara .....	559
Irakasleak .....	40

## UROLA

Alfab. ....	125
Eusk.....	110
denetara .....	235
Irakasleak .....	30

## KOSTALDEA

Alfab. ....	97
Eusk.....	322
denetara .....	419
Irakasleak .....	39

## ERRENTERIALDEA

Alfab. ....	110
Eusk.....	1.699
denetara .....	1.809
Irakasleak .....	109

## DENETARA

Alfab. ....	1.289
Eusk.....	8.737
denetara .....	10.036
Irakasleak .....	784

## BIZKAIA

## BUSTURIALDEA

Alfab. ....	52
Eusk.....	130
denetara .....	182
Irakasleak .....	13

## HEGO URIBE

Alfab. ....	26
Eusk.....	1.207
denetara .....	1.233
Irakasleak .....	72

## URIBE KOSTA

Alfab. ....	50
Eusk.....	1.702
denetara .....	1.752
Irakasleak .....	110

## URIBE BUTROE

Alfab. ....	62
Eusk.....	84
denetara .....	146
Irakasleak .....	13